Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero

389

Urtarrilak 15, 2021

“Aita Mari portuan geldirik ikusi arren, atzetik dagoen lana ez da inoiz eteten”

2 Irun Atzo Irun Gaur
3 Berri laburrak
4 Sagardotegi denboraldia
6-7 Aita Mari ontzia
8 Kirolak: Erroibide
9 Kirolak: Kinendu
10 Mendi itzulia
11 Haurren lanak / Denbora-pasak
13 Beti gazte: Kultur ekitaldiak
14 iGazte
15 Agenda

caser residencial

INFORMA ZAITEZ!

Adineko pertsonentzako egoitzak

EGONALDI IRAUNKORRAK
ALDI BATERAKO EGONALDIAK
· FAMILIAREN ATSEDENERAKO
· ERREABILITAZIO, OPERAZIO ONDOKOAK
· GAIXONDOKOAK

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Pirineo Atlantikoko Departamenduarekin hitzartuak

Caser Anaka - Anaka kalea 8- IRUN - 943 66 77 80. Caser Betharram - Zubieta kalea 161 - HONDARRIBIA 943 64 71 69

ZER GERTATU ZEN IRUNEN ORAIN DELA 100 URTE?

Orain dela mende bat Irunen albiste ziren gertaerak ezagutzeko, 1921. urtean Irunen argitaratutako "El Bidasoa" aldizkariak irakurtzea nahikoa da. Adibidez, 1921eko urtarrilaren 23an argitaratutako aldizkarian hiria urez hornitzeko sistemaren berrikuntza lanak amaitu ostean, lanen emaitzaren inaugurazio ekitaldiaz hitz egiten da astekarian. Jarraian, Justinianok Arkaleren falta aipatu eta aldizkarian bere kolaborazioen falta sentitzen duela aipatzen du. "Virtud y piedad" titulua daraman idatzian bikote baten maitasun gorabeheren kontaketa egiten da. "Pax, bobis" idatzian, berriz, E.R-k udal gobernu berriaren lehen bilkuren nondik norakoak azaldu ditu. Ostean, "De las que vestirá capuchón blanco"-k sinatutako idatzia argitaratzen da aldizkarian, aurreko zenbakietan "La de los ojos color uva" izenez sinatzen zuenari erantzunez.

Kirol kronikan, aldiz, aurreko igandeko partiduen emaitzen laburpena argitaratzen da, Gipuzkoako Txapelketaren sailkapenean datozen jardunaldietan zehar gerta daitezkeen aldaketen aurreikuspena egiteaz gainera. "De la cuenca. Vera" tituluarekin, herrian olioa eta ogiaren hornikuntzarekin loturiko arazoa konpondu ez dela salatzen du "Un Colindante"-k. "Notas Municipales" atalean, azken udal bilkuran hartutako erabakiak jakinarazten dira.

Hirugarren orrialdearen hasieran okelaren prezioak adostu eta herri ezberdinen arteko desberdintasunak azaltzen dira. "Dupresty"-k Lore-Bidea frontoian jokatutako azken partiduaren kronika argitaratzen du aldizkariaren zenbaki honetan. Segidan, trenbidetako langileek eta ogi hornikuntzarekin loturiko arazoaren inguruan okinen kolektiboak emandako azalpena publikatzen da. Era eberea, hiriaren historia laburbiltzen duen atal berria argitaratzen da, iraganeko gertakari nabarmenenak argitaratuz. Zenbakia "Ecos de sociedad" atalean biztanleriaren goi klaseetako nobedadeak aipatzen dira eta, azkenik, "Noticias" atalean albisteen laburpenarekin amaiera ematen zaio zenbakiari.

Argazkiak:
G57832: Egungo Iparralde hiribidean kokatutako Ramuntxo trinketea eta etxeak, garai hartan Frantziako hiribidea izenez ezagutzen zena.

G26294: Domikoko prentsa.

G38389: Behobiako errepidea XX. mendearen hasieran, egun Juan Thalamas Labandibar dena.

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:
Ainara Berges
Joseba Arozena

erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Ayuntamiento Udala irun www.irun.org

Publizitatea:
Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:
Andrea Gomez Arocena

Inprenta:
ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943042052

Webgunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Gipuzkoako Foru Aldundia

Martxan da CBA liburutegia handitzeko lanen bigarren fasea

Abian da Carlos Blanco Aguinaga kultur zentro eta liburutegia handitzeko prozesua: 2020ko azken bilkuran, kultur instalazioaren bigarren faseko erabilerak zehaztuko dituen proiektua idazteko lanak esleitzea onartu zuen Tokiko Gobernu Batzarrak. Horrela, sorkuntza, berrikuntza eta arte garaikideari eskainitako espazioen sorrera aurreikusten da.

Cristina Laborda Obretako ordezkariak azaldu duenez, hirirako ekipamenduaren barruan egingo diren obra nagusietako bat da eta proiektua idazteko unea iritsi da. "Hiri erdi-erdian horrelako eremu handia eta egokitua sortuz, San Juan plazaren berrurbanizazioaren bukaera hurbilago dago. Kasu honetan, eraikinak kultura eta gazteei zuzendutako instalakuntzak eskainiko ditu.

2019ko urrian, kreditu aldaketa bat onartu zenean, Elkarrekin Podemos taldeak CBAren bigarren fasea aurrera eramateko aurkeztutako zuzenketa bat onartu zen. Bada, zuzenketa horrek 2019tik 2022ra bitartean guztira 2.520.000 euroko gastua egitea proposatzen zuen, eta 2020ko aurrekontuaren barruan 500.000 euro jartzea.

Arte eszenikoetarako aretoa

Oro har, Udal taldeak eta kultur elkarteak ordezkatuta dauden Aholku Batzordean adostutakoa oinarri hartuta, proiektuak zehaztu beharreko jarduketaren helburua egungo liburutegi eta kultur zentroko kultur instalazioa handitzea eta sendotzea izango da. Zehazki, San Juan plazako lurpeko lehen solairuan egungo CBAtik sartuta erabilgarri dagoen lekuan gauzatuko da proiektua, eta aurreikusten diren erabilerek hirian kultur gaietarako balia daitekeen ekipamendua handitzea izango dute helburu, ekipamendu moderno eta ibilerrazak eta erabilera anitzeko aretoak sortzeko.

CBAren bigarren fasearen alderdi interesgarrien artean, aipatzekoa da arte eszenikoetarako (formatu ertaineko kontzertuen eta bestelako ikuskizunen antolaketarako) areto bat sortzeko aukera. Sorkuntza, berrikuntza eta arte garaikideari eskainitako espazioak aurreikusten dira. Guztira, 2.200 m2 inguruko azalera erabiliko da bigarren fasean.

Proiektua idazteko lanak Arcaya Arquitectos eta Erro Amaro Técnicos de Arquitectura e Ingeniería SLP enpresek osatutako aldi baterako enpresa elkarteari esleitu zaizkio. Irungo erdigunean kokatutako liburutegia osatzeko proiektuak 160.654,99 eurotako aurrekontua izango du, BEZa barne.

Eguzkitzako jolastokia eraberritzeko proiektua onartu du Tokiko Gobernu Batzarrak

Abenduaren 23an Eguzkitzako patioa berritzeko lanen proiektu-teknikoa onartu zuen Tokiko Gobernu Batzarrak. Proiektua 2019an partaidetza bidezko aurrekontuetan boto gehien jaso zituen jardueretako bat izan zen. Lanak 2021eko udan zehar egia aurreikusten da, 191.080 euro inguruko aurrekontuarekin.

Proiektuan zehaztu bezala, patioaren mendebaldean atxikitako eraikinetako zarata arintzeko metakrilatozko pantaila akustiko baten instalazioa aurreikusita dago. Hortaz gain, ikastetxeko jolastokia berrantolatuko da, segurtasun zoruaren azalera handitzeaz gainera, mendebaldeko muturrean futbol zelaia eta kalea banatzen dituen nylonezko sarea ordezkatuko da.

Cristina Laborda Obra arloko ordezkariak adierazi duenez, "elkarlanaren adierazgarri" bat da hau, kasu honetan, Udalaren eta eskola komunitatearen arteko elkarlana. Obra ordezkariaren hitzetan, lanak 2020. urtean egitekoak ziren, baina, pandemia zela-eta, lanak atzeratzea beharrezkoa izan da. Berrio lanak martxan daudela jakinarazi ostean, Labordak aurkeztutako proiektuak ikastetxearen beharrei erantzuten diela nabarmendu du, haurren jolasgaraiko gozamena kontutan hartu eta elementu hezigarrien kopurua handiko baita.

Santi Jiménez Udaleko Hezkuntza Arloko ordezkariak nabarmendu duenez, oso garrantzitsua da horrelako proiektuak udala eta eskola komunitatearen arteko elkarlanetik sortzea. Urtero udako hilabeteetan zehar, eskoletako oporraldi garaia baliatuz, udalak hiriko ikastetxeak hobetzeko lanak egin ohi ditu, zentroek helarazitako eskakizunei erantzuna emanez. Horrela, proiektuak bide onetik jarraituz gero, Eguzkitzako jolastokiko lanak datorren udan egitea aurreikusten du Obra arloak. Behin proiektua onartuta, lizitatu egingo da. Aurrekontua 191.080,16 eurokoa da.

Zurezko elementuak nagusi

Jolastokia berritzeko proiektuaren barruan, era askotara erabil daitezkeen hainbat hiri altzari instalatu nahi dira. Jolas-eremuari ukitu berri bat emateko zurezko elementuak instalatuko dira, elementu jasangarrien erabilera bultzatuz. Zehazki, 2-3 urtekoentzako eremua zurezko tren txikia, gehienez bi metroko altuera izango duen enborrez osatutako piramidea, eskalatzeko harkaitz bat irudikatuko duen instalazioa eta orekarekin jolasteko beste enbor batzuk ipiniko dira. Gainera, haurrek segurtasunez jolastu ahal izateko, azalera guzti hori segurtasun zoruarekin estaliko da kautxuzko zorua edo belar artifiziala erabiliz. Era berean, jolastokiko estalpeko eremuko lurrean jolasteko guneak pintatuko dira. Futbol zelaiaren iparraldean, berriz, pinuzko trabesez eratutako harmailak jarriko dira, belar artifizialez akabatuak. Hortaz gain, jardinera bat, iturri bat eta zurezko banku bat instalatuko dira.

ANTXETA IRRATIA 90.5 / 89.7 FM

Olaizola INMOBILIARIA AGENTZIA
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Iñaki Bengoetxea, Ola Sagardotegiko nagusia:

“Zubeltzu kupela, 22 urteren ostean, lehenengo aldiz hutsik geldituko da aurten”

Irungo Ola Sagardotegia erronkez beterik datorren sagardo denboraldiari aurre egiteko prestatzen ari da. Aurtengo uzta eskasa izan arren, kalitatezko sagardoa Meakako kupeletan prest dago jada bezeroen esperoan. Ohi bezala txotx irekiera ekitaldia antolatzea ezinezkoa izango bada ere, Iñaki Bengoetxea Ola sagardotegiko nagusiak sagardo kontsumitzen jarraitzea espero du.

Nola aurreikusten duzue aurtengo sagardotegi denboraldia?
Ez dakit, nik neuk ere ez dakit nolakoa izango den. Nahiko estua izango dela imajinatzen dut eta guztiz desberdina aurreko urteekin alderatuz gero. Jendeak protokoloak errespetatzea kontrolatu beharko dugu, urtea ahal den moduan igaro eta aurrera egiteko.

Aurten Txotx Irekiera ekitaldia antolatzea ezinezkoa izango da, ezta?
Ezinezkoa, guztiz ezinezkoa. Jendea galdezka dabil, baina, ezinezkoa da lehengo koadrilak elkartzea, talde txikitan bildu beharko gara. Gauetan afariak emateko aukerarik ez badugu, asteburuetan bazkariak eskaini ahalko ditugu bakarrik.

Aurreko urtean pandemiak eragindako lehen murriztapenera egokitu behar izan zineten?
Bai, baldintza oso gogorrak dira, batez ere, gure kasuan gauez irekitzeko aukerarik ez izatea. Izan ere, lanegunetan eguerdietan ez da hainbeste jende hurbiltzen sagardotegira. Udaran, aldiz, jendea gehiago animatzen da eta eguraldi onak terraza erabiltzeko aukera ematen digu.

Ezarritako murriztapenak betetzeko zein neurri hartzea aurreikusten duzue?
Bezeroak eserita egon beharko dira eta azken urteetan egin bezala, sagardoa pitxerren bitartez zerbitzatuko dugu. Kopuruaren arabera txotxen bat eskaintzeko aukera aztertuko genuke, baina, momentuz behintzat eserita egin beharko dira. Neurri berriak jakinarazi arte itxaron beharko dugu sagardotegiarekin loturiko erabakiak hartzeko. Egoerak aurrera egin ahala egokitzen eta jendea kontzientziatu joan beharko da.

Joan den urtean parrilla berria estreinatu zenuten. Pozik zaudete lortutako emaitzarekin?
Bai, oso pozik. Arrakasta handia izan du, txuleta barrutik tenperatura mantentzea laguntzen du eta jakia oso ondo prestatzen du, kanpotik karamelizatu eta beroa mantenduz. Aurten, momentuz, ez dago beste nobedaderik, baina, jakiak prest daude. Pandemiak ez du sagardoaren kalitatea kaltetu, beraz, pitxerretan kupela desberdinetako sagardoa dastatzen emateko asmoa dugu.

Zein da Magnum botilako sagardoaren berezitasuna?
Edizio mugatuko botila ateratzea erabaki nuen Suola Magnum izenarekin, beheko kupeleko sagardoa aprobetxatzeko. Zubeltzu kupela 22 urteren ostean lehenengo aldiz hutsik geldituko da. Zentzugabea da burdinolaren barruan sagardoa edukitzea jendea sagardotegitik mugitzeko aukerarik ez badu. Berezitasun gisa, beheko kupeleko sagardoa botila handietan erosi eta jendeari dastatzeko aukera eman nahi izan diot. Kupela horren berezitasun karbonikorik eta tenperatura-kontrolik ez izatea da. Lur azpian kokatuta dago, 13 metroko altueran, burdinolaren barruan.

Pandemiaren eraginez, jendeak Olako produktuak erosi eta etxean kontsumitzen ditu?
Bai, jendea bertara sagardoa erostera hurbiltzen ari da eta dendetan kontsumoa hazi egin dela nabaritu dugu, orain arte Europa edo Frantziako estiloa izan dena jarraituz. Jendeak sagardoa edateko gogoak dauzkala erakusten du horrek.

Pandemiak sagardoaren ekoizpen prozesua oztopatu du?
Bai, kasualitatez, aurten sagastiek sagar gutxi eman dituzte. Azken hogei urteetako uzta txikiena izan dela uste dut, baina, ondo etorri zaigula esango nuke, izan ere, aurreko urteetako sagardoa kupeletan ondo kontserbatuta gorderik geneukan. Bestela, denboraldi ezohiko honetan ez genuke jakingo zer egin hainbeste sagarrekin. Beraz, uzta eskasa izan da urte eskas batentzat.

Zer aurreratu dezakezu aurtengo sagardoaren ezaugarrien inguruan?
Kalitatezko sagardoa dela iruditzen zait, gorputz zein koloreari dagokienez. Uzta eskasa izan arren, kalitatezkoa izan dela esango nuke. Bero asko egin zuen eta udazkena ere nahiko ondo portatu zenez, beraz, graduazioari dagokionez oso sagardo ona lortu dugu.

Egoeraren ezegonkortasuna ikusita, hurrengo sagardo denboraldietan eragina izatea espero duzu?

Momentuz behintzat ez dut uste datozen denboraldietan ekoizpena murriztu edo antzeko erabakirik hartzea beharrezkoa izango denik. Ez dut oraindik sagastiak ateratzen hasteko beharrik ikusten eta dauzkagunak zaindu beharra dugula uste dut. Egoerak buelta eman eta bezeroek sagardoa kontsumitzen jarraituko dutela espero dut. Azken finean, txotxa sagardo denboraldiko parte bat da, baina, udaran terrazak irekitzeko aukera ematen badigute, ziur nago sagardo kontsumoa mantenduko dela. Egoeraren alde ona ikusi nahi dut, udaran dena hobetu eta negua eta udaberria ahal den modurik onenean gainditzea nahiko nuke. Horrela, datorren urtean gure ohiko lan erritmoa berreskuratu ahal izango genuke.

“Egoerak bueltan eman eta bezeroek sagardoa kontsumitzen jarraituko dutela espero dut”

Juanjo Acosta, Aita Mari ontziko bigarren ofiziala:

“Portura iritsi berritan oraindik burua itsasoaren beste muturrean duzula sentitzen duzu”

Juanjo Acosta Aita Mari ontziko bigarren ofiziala da. Abenduan Pasaiako itsasontzian bere lehen bidaia egitekoa zen, Aita Mariko kapitainak izandako istripuaren ondorioz bidaia bertan behera gelditu zen arte. Hala ere, aurretik, Juanjo Acosta migratzaileen krisialdian boluntario gisa lanean ibili zen Kihos uhartean.

Zergatik erabaki zenuen Aita Mari ontzian lan egitea?
Aita Mari ontziaren jarduera ezagutzen nuen, armadorea Itsas Salbamendu Humanitarioa elkartea da. Aurretik haiekin Grezian izan nintzen, Kihos uhartean istilu handiko garai batean eta boluntario bezala egun asko eman nituen bertan. Aitari minbizia antzeman zionean 4 urtez geldirik egon nintzen eta aita zendu ostean haiekin lanera itzultzea erabaki nuen. ISH erankundearri mezu bat bidali nion itsas gizona naizela azalduz eta nire laguntzeko prestutasuna azalduz. Mezua bidali eta hamar minuturen ostean telefono dei bat jaso nuen eta bi egun barru itsasontziarekin ateratzeko ofizial bat behar zutela esan zidaten.

Aurten aurreikusi baino egun gutxiago eman ditu Aita Mari ontziak itsasoan lanean?
Bai, ez gara nahi genuen guztia egitera iritsi. Gauza da, gatazka burokratiko asko izan ditugula eta gure esku zegoen guztia egiten ahalegindu gara. Kapitainak itsasontzian istripu bat izan zuen eta azken bidaia bertan behera utzi behar izan genuen.

Pandemiak nolabaiteko eragina izan du zuen jardueran?
Bai, asko gainera. Izan ere, pandemiaren eraginez tramite burokratikoak konplikatu egiten dira, protokolo berriak antolatu eta kutsatzerik gertatzea saihesteko kontu handiagoz ibili behar zara. Hortaz, itsasontziko lanari, lurrean egin beharreko tramite guztiak gehitu behar zaizkio.

Italiako portuan gobernuaren aginduz itsasontzia 49 egunez blokeatuta egon zen?
Azken finean, Italiako gobernuari ez zaio interesatzen zuk bertara migratzaileak eramatea, beraz, ahal duen guztia egiten du zure jarduera eteten saiatzeko. Horretarako, ikuskatze zorrotzak egiten dituzte itsasontzian, hobetu beharreko gauzak antzeman eta itsasontzia geldiarazteko.

Ondorioz, itsasontzian konponketa lanak egin behar izan dira?
Bai, bestela, ezinezkoa zen berriro itsasoratzea. Gobernuak agindutako lanak teknikoki gazteleraz MARPOL siglez ezagutzen den, ontziek eragindako kutsadura prebenitzeko nazioarteko hitzarmenarekin zerikusia duten gauzak izan dira. Zaborraren kudeaketa oso modu zehatz eta zorrotzean egitea exijitzen digute. Bestetik, hondakin-urentzako biltegi erraldoia izatea eskatzen ziguten, merkataritza-ontzi bat bagina bezala.

Gobernuek, lagundu beharrean, Aita Mari ontziaren jarduera oztopatzen dute?
Bai, azken finean, itsasora atera eta lanean hasi ahal izateko haien baimena behar duzu eta baimenak lortu bitartean denbora asko galtzen da. Horregatik, ezinbestekoa da Gobernuz Kanpoko Erakundeek eskaintzen diguten babesa, izan ere, guztion artean laguntzeko bidea dira eta.

Migratzaile kopuruan aldaketarik nabaritu duzue azken urte honetan?
Oso zaila da zenbaki zehatzak ematea, azken finean, inguru horretan lanean gabiltzan itsas salbamenduko ontziak eta GKEak gara itsasoan topatutako migratzaileen inguruko datuak bildu eta nolabaiteko kontrola daramagun bakarrak. Portutik atera eta Mediterraneora iritsi arte ez dakigu zenbat migratzaile aurkituko ditugu, non edo zein baldintzatan. Interes kontua da dena, Libiako autoritateei ez zaie interesatzen informazioa zabaltzea, beraz, ez dago datu ofizialik.

Noiz aurreikusten da Aita Mari ontziaren hurrengo bidaia egitea?
Otsailean lehenengo irteera egitea aurreikusita dago. Jendea etengabe itsasoa zeharkatzen eta asko bidean itotzen ari direla dakigu, nabigatzeko baimenaren esperoan gauden bitartean. Beraz, dena espero bezala ateratzen bada, otsailean Aita Mari itsasora itzultzea espero dugu.

Zein da Aita Mariren irteera bat antolatzeko jarraitu beharreko prozedimendua?
Aita Mari ontziaren bidai bat antolatzeko ikusten ez den lan asko dago atzetik. Itsasora atera aurretik, itsasontziko tripulazioa osatzeko jendea bilatu, PCR probak egin edo beste herrialdeetatik datozen tripulazio-kideen bidaiak antolatu behar dira. Pandemiarekin, gainera, prozedura guzti hauek ohi baino konplexuagoak dira. Dokumentazioaz gainera, itsasontziko ekipamendua eta hornidura guztiz prest egon behar dira itsasoratzeko unea iristen denerako. Aita Mari portuan geldirik ikusi arren, atzetik dagoen lana ez da inoiz eteten.

Erreskate baten kasuan, berriz, zein da zuen egitekoa?
Migratzaileak uretan aurkitu ostean, patera hori erreskatatzeko baimena eskatu behar dugu. Adibidez, Libiako kostaldean migratzaileak erreskatatuz gero, Italiari pertsona horiek bertan uzteko baimena eskatu behar da eta orduan hasten dira itsasontzia porturatzea lortzeko tramite guztiak.

“Orain guri dagokigu beharrezkoa den erantzuna ematea”

Argazkia: Pablo García Sacristán

Ontzia zenbat pertsona erreskatatzeko prestatuta dago?
Aita Mari ontziak 90 pertsona artatu ahal izateko baimena duela esango nuke. Kopuru zehatza da eta bidaiarien segurtasuna bermatzeko kopurua ezin daiteke inondik inora ere gainditu. Bestela, itsasontzia geldiarazi edo isunak jasotzeko arriskua dago. Covid-19a dela-eta, erreskatatu daitezkeen migratzaileen kopurua murriztu da, lehen 120 pertsonentzako lekua genuela uste dut.

Bizipenek markatutako lana dela esango zenuke?
Istripuaren ondorioz Aita Marirekin egitekoa nuen lehenengo bidaia bertan behera gelditu zen. Dena dela, Grezian boluntario gisa egondako garaiko bizipen ugari gogoratzen ditut, migratzaile etorrera handiko garai baten egon nintzelako bertan. Itsasoan ez, baina, bertan lurrean arazoak bere horretan jarraitzen du inolako konponbiderik gabe. Horregatik, ISHk mediku zein erizainekin lanean jarraitzen du inguruan. Azkenean, itoaldidik salbatu arren, lurrera iritsi eta migratzaileen bizi baldintzak okertzen direla ikustea kezkagarria da. Ihesean datozen pertsona horien bizitza hobetzen saiatzeko grinak bultzatzen gaitu, baina, saihestezina da lurrera iritsitakoan espero zaien errealitateak tristura eragitea.

Argazkia: Aita Mari ontzia

Portura iristerakoan itsasontzian bizitako guztia ahaztu egiten da?
Zaila da itsasoan bizitako guztiak atzean uztea. Itsasoan nabilenez ni neu ohituta nagoela esan dezaket, beraz, lan eta gau gogorretara ohituta nagoela uste dut. Portura iritsi berritan oraindik burua itsasoaren beste muturrean duzula sentitzen duzu askotan. Pertsonaren izaeraren araberakoa izan ohi da hori, batzuei besteei baino gehiago kostatzen zaie.

Gizartea egun oraindik migratzaileek bizi duten egoeraz kontziente dela uste duzu?
Denetarik dago. Bada migrazio krisiaren gorabeherren berri duen jendea eta badira ere gaiaren inguruan ezer gutxi dakitenak edo jakin nahi dutenak. Errealitate hortaz jabetzeko nahikoa da alderdi politikoen jarrerari erreparatzea. Egia da, pandemiaren eraginez gaia oraindik gehiago baztertu dela, gizartearen osotasunari erreparatu beharrean, bakoitzak bere arazo indibidualetan zentratzea eragin baitu.

Zure ustez, zer aldatu beharko litzateke migrazio krisialdiari nolabaiteko konponbidea eman ahal izateko?

Argazkia: Pablo García Sacristán

Arazoa benetan konpontzeko mundu osoa hobetzea beharrezko ikusten dut. Hain zuzen ere, migrazioaren atzean, gerrak, esplotazioa, Giza Eskubideen urraketa eta bestelako arazo erraldoiak ezkutatzen dira. Ez dugu ahaztu behar migratzaileek haien jatorrizko herrialdeetatik ihesean datozela, bertan bizi duten egoeraren ondorioz. Hortaz, laguntza esker datorren jendeari beharrezko harrera eta babesa eskaini beharko litzaiokeela uste dut. Iraganean gure arbasoak gai batean migratzaile izan zirenez gero, orain guri dagokigu beharrezkoa den erantzuna ematea.

Nola planteatzen duzue 2021. urtea Aita Mari ontzitik?
Argi eta garbi dago urte gogorra izango dela, pandemiaren eboluzioaren arabera gure jarduera egokitu beharko baitugu. Migratzaileek Mediterraneoa inolako segurtasun bermerik gabe zeharkatzen jarraituko duten bitartean guk lanean segitzeko asmoa dugu. Beraz, gure helburua bertan egon ahal izatea da, jendeari behar duen laguntza eskaini eta mundu osoari itsasoaren zati batean gertatzen ari denaz informatu ahal izateko.

Ingelesa ikasi nahi duzu?
- Cambridge azterketen prestakuntza emaitza paregabeekin.
- Metodologia dinamikoa eta eraginkorra.
- Irakasle natiboak.
- Prezio erakargarriak.
- Teknologia berrien erabilera.
- EEBBtan eta Irlandan udako egonaldiak.
WELCOME School of English
943 61 30 61
Gipuzkoa hiribidea, 2. zbk -1 eskubi. IRUN
welcome@welcomeshool.es

EGUZKITZA HLHI
PROIEKTUETAN OINARRITUTAKO HEZKUNTZA ESKAINTZA BERRIZTATZAILEA ETA INTEGRATZAILEA
Bisitak talde txikitan egingo dira honako egun eta ordutegiarekin:
Urtarrrilak 19 eta 21, 17:00etatik 19:00etara.
Aurretik hitzordua eskatu behar da.
VICTORIANO JUARISTI, 1 IRUN
TLF: 943505910
013372aa@hezkuntza.net
baikara
KALITATEA HEZKUNTZAN
eguzkitza

Txapelketetara itzultzeko desiratzen dago Erroibide saskibaloi kluba

“Egoera oso aldakorra da eta ezinezkoa da etorkizunera begira aurreikuspenak egitea”
Ana Iturria, Erroibideko lehendakaria

“Entrenatzeaz gainera, kirolariak partiduak jokatzeko desiratzen daude”
Sergio Martín, Erroibideko kirol-zuzendaria

Hiriko gainontzeko kirol kluben antzera, Erroibide saskibaloi kluba agintariek pandemiaren bilakaeraren arabera ezarritako neurrietara egokitzen ari da. Denboraldi hasieratik klubaren jarduera murriztapen berrietara egokitu eta osasun agintariek markatutako gomendioak jarraituz saskibaloia praktikatzen jarraitzeko haien esku egon dena egin dute.

Urtarrilaren 11ean LABIko aholku-batzordeak COVID-19k eragindako osasun krisialdiaren egoerari aurre egiteko neurri berriak iragarri zituen. Hortaz, urtarrilaren 13tik Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian argitaratutako neurri berriak indarrean daude. Neurri berri horiek jarraituz, COVID-19aren kasu positiboen azken 14 egunetako intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 500 baino gutxiagokoa duten udalerrietan maila guztietako lehiaketak eta entrenamendu osoak, mugikortasun murrizketarik gabe, baimentzen dira. Hala ere, jendea kirol ekitaldietara ikusle gisa joatea debekatuta jarraitzen du. Euskal Saskibaloi Federazioak bere lehiaketei berrekingo diela jakinarazi du, klubei aurkeztutako lehiaketa-oinarri berriak jarraituz.

Erroibide klubaren kasuan, neurri berrien arabera Bigarren Nazional mailan jokatzen duen taldeak txapelketara itzultzeko aukera izango du. Ana Iturria Erroibide klubeko lehendakariak azaldu duenez, klubeko kirolariak, entrenamenduetara itzultzeaz gainera, txapelketetan lehiatzeko irriketan zeuden. Klubeko lehendakariak adierazi duenez, “egoera oso aldakorra da eta ezinezkoa da etorkizunera begira aurreikuspenak egitea”.Gauzak horrela, klubean entrenamenduak mantentzea eta kideek haien kirol errutinak lehenbailehen berreskuratzea dira orain Erroibideko arduradunek buruan dauzkaten lehentasunak.

Senior nazionaleko entrenatzailea eta Erroibide klubeko kirol-zuzendaria den Sergio Martínek modu positiboan baloratu ditu entrenamenduak mantendu eta txapelketara itzultzea ahalbidetzen duten neurriak. “Entrenatzeaz gainera, kirolariak partiduak jokatzeko desiratzen daude”, azaldu du klubeko kirol-zuzendariak. Denboraldia modu ezinhobean hasi zuen taldeak, izan ere, azken urteetako bolada txarra atzean utzi eta bi garaipen garrantzitsu eskuratu baitzituzten, taldea sailkapenaren lehen postuan kokatzea lortu zutenak. Etenaldiaren ostean, bigarren nazionaleko taldeak emateko duena iksuteko dago.

Erroibideko arduradunak klubaren etorkizun hurbilean zentratuta daude, egoerak urrutiegi begiratzeko aukerarik ematen ez duela ikusita. Esaterako, denboraldi hasieran jokalarientzako fitxak eskatu behar izan zituzten, denboraldian zehar txapelketara itzultzeko aukerarik izango ote zuten jakin gabe. Oraindik, ordea, txapelketak antolatu edo harmailetara Erroibideko jarraitzaileak itzultzeko aukerarik gabe jarraitzen du klubak. Momentuz, klubak 10 talde eta 150 jokalari inguru dauzka, beraz, saskibaloien neska zein mutilen kasuan datozen urteetarako harrobia bermatuta dagoela azaldu dute klubeko ordezkariek.

Txikiak kaltetuenak

Aurreko asteetan zehar, agintariek markatutako arauak jarraituz, klubak kadete, jubenil eta senior taldeen entrenamenduak berreskuratzeko aukera izan zuen. Klubeko bazkide txikienek, aldiz, 2020ko abenduaren 12tik ezin izan dira saskibaloi entrenamenduetara itzuli. Urtarrilaren 9an Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetan Eskola Kirolaren itzulera eskatzeko mobilizazioak egin ziren eta urtarrilaren 11ean iragarritako murriztapen berrien arabera kirola maila guztietan praktikatu ahal izatea onartu zen, etxeko txikien poztasuna eraginez. Sergio Martín kirol-zuzendariak azaldu duenez, neurri berriak iragarri aurreko egunetan klubeko gurasoen hainbat dei jaso zituzten, gainontzeko gazteek bezala, txikiek saskibaloi entrenamenduetara zergatik itzul ez zitezkeen galdetuz.

Hurrengo denboraldietan pandemiaren ondorioz gertatutako kirol etenaldiak klubeko kirolari kopuruan izango duen zeharkako eragina agerian geratuko da. Ana Iturria lehendakariak azaldutakoaren arabera, momentuz, Erroibidek bazkide kopuruari dagokionez ez du aldaketa handirik nabaritu. Dena dela, lehendakariak azaldu duenez, jubenil mailako jokalarien egoera kili-kolo ikusten dute. Izan ere, Batxilergoko ikasleak direnez, ikasketek garrantzi handia hartzen dute adin horietan, hortaz, Erroibidetik aurrerantzean taldeak mantendu ahal izatea espero dute.

Eragin ekonomikoa

Osasun krisialdiak baldintzatutako denboraldiaren gorabeherak klubaren egoera ekonomikoan islatzen dira. Hain zuzen ere, Ana Iturria lehendakariak azaldu duenez, klubak diru-laguntzei esker funtzionatzen du. “Orain dela gutxi 2019. urteari dagozkion laguntza jaso berri ditugu”, adierazi du lehendakariak. Azken diru sarrera horiei esker kluba aurrera jarraitu ahal izateko nola edo hala moldatzen ari dela baieztatu du Iturriak. Era berean, Erroibideko lehendakariak 2020ko laguntzen inguruan ezer gutxi dakitela azaldu du, “aurreko urteetako diru-laguntzen kopurua mantentzea espero dugu, etorkizunean klubak jarraipena ziurtatuta izan dezan”. Izan ere, murriztapen edo osasun krisialdiaren gorabeherez gainera, klubaren egoera ekonomikoak Erroibideren etorkizuna baldintzatu dezakeelako.

Kinenduk GKEentzako finantziazioa lortzen du kirol ekitaldi birtualen antolaketari esker

Saul Cintero eta Angel Ramosek bultzatutako Kinendu proiektua GKE edo fundazioentzat dirua biltzeko kirol ekitaldi birtualen antolaketaz arduratzen da. Kinendu zerbitzuak pandemiari esker mundu mailan zabaldu direla azaldu du Angel Ramosek

Angel Ramos eta Iker Velasco.

Nola sortu zen Kinendu proiektua?
Egia esan, proiektua Saul Cinteroren eskutik sortu zen, solas gisa, korrika egiteko aplikazio erraz bat sortzeko nahiak bultzaturik. Aplikazioa merkatura atera eta proiektua pixkanaka hazi zen. 2016. urtean Euskadiko Buber saria irabazi genuen, Software librea ondoen sustatzen duen weba edo aplikazioa kategorian. Saria eskuratu ostean, proiektua garatzeko finantziazio bila hasi ginen, baina, ezer gutxi lortu genuen. Azken finean, gure aplikazioaren helburua GKEei kirol ekitaldien antolaketaren bitartez finantziazioa lortzen laguntzea da. Esan beharra dugu Irunera iritsi eta Bidasoa Bizirik elkarteak eta Bic Berrilanek asko lagundu ziguten.

2020. urteak aukera ederra oparitu dizue zuen proiektua garatzeko?
Bai, orain dela hiru arte hasi ginen zorakeria honi itsura ematen eta orduan oso zaila zen guretzat enpresengana iritsi eta GKEentzako dirua biltzeko kirol ekitaldi birtualak aurrera ateratzea. COVID-19aren agerpenak eragindako pandemiaren eraginez lasterketa birtualak antolaketa asko handitu da. Pandemia agertu berritan Kinendu zen lasterketa birtualen antolaketarako webgunea eta aplikazioa guztiz garatuak zeuzkan enpresa bakarretako bat. Gauzak horrela, 2020. urtean zehar 29 lasterketa birtual antolatu ditugu. Panama, Mexiko edo Kolonbia bezalako herrialdeetan egindako kirol ekitaldien antolaketaz arduratu gara, Unicef, “Fundación Real Madrid fundazioa eta Real Sociedad fundazioa bezalako goi-mailako GKEekin lan egiteko aukera izan dugularik. Beti ere, kirol ekitaldien antolaketaren bitartez ekimen solidarioen antolaketa laguntzea izan da gure helburua.

Gizartean kirol ekitaldi birtualetan parte hartzeko ohitura zabaltzen ari da?
Bai, horregatik, azkenaldian Kinendutik eskaintzen dugun zerbitzua kopiatu eta lan berdina egin nahi duten enpresa asko sortu dira. Zentzu horretan, guk abantailarekin jokatzen dugula esan dezakegu, izan ere Strava, Garmin, Polar, Fitbit, Apple Earth edo Google Fit teknologia erabiltzen duten gailuekin zuzenean konektatzeko ahalmena dugulako. Bestelako enpresek, aldiz, oso oinarrizkoa den zerbitzua eskaintzen dute.

Proiektua ekimen solidarioak laguntzeko asmoan oinarriturik dago?
Kinendutik antolatutako kirol ekimen guztiek helburu solidarioa dute, hau da, GKE edo fundazio batentzat dirua biltzeko helburua. Horrela, erakunde hauen jardueran ezagutarazi eta haien ekimenetarako ahalik eta diru gehien biltzen saiatzen gara.

Izaera birtualak zerbitzua mundu osoan zehar eskaintzeko aukera ematen dizue?
Une honetan gure jardueraren zati gehiena lurraldearen mugetatik kanpo dugula esan dezakegu. Orain arte aurrera eramandako proiektu indartsuena Panaman antolatutako lasterketa solidarioa izan daiteke, FANLYC fundazioari leuzemia eta minbizia duten gazteen bizitza hobetzen laguntzeko dirua biltzeko proiektua kudeatu genuen eta. Kirol ekitaldi hartan 24.000 dortsal saldu genituen eta 71 enpresa multinazionaletako langileek parte hartu zuten bertan. Kinenduk eskainitako zerbitzuari esker fundazio honen itxialdia ekidin eta aurrera jarraitzeko baliabideak eman dizkiogula jakitea oso pozgarria da.

Lehiakideengandik bereizten zaituen zerbitzuk eskaintzen duzue?
Bai, adibidez, antolatutako kirol ekitaldietan tanta solidarioz osaturiko mapak eskaintzen ditugu. Era honetan, erronka bakoitzean munduko toki desberdinetatik parte hartu duten pertsonen kopurua zenbatu eta mapa batean irudikatzen dugu, parte-hartzaile bakoitzaren kokapen zehatza eskainiz. Gure asmoa ez da aurrez aurreko lasterketak eremu birtualera eramatea edo lasterketa herrikoiak ordezkatzea. Orain, Ekiphosekin lankidetzan antolatutako ekimenen argazki galeriak eskaintzen ditugu, besteak beste.

Kirol ekitaldia hasieratik bukaerara kudeatzen duzuela esan daiteke?
Hori da. Joan den urtean izen-emateak burutzeko plataforma guztiz garatu genuen. Hortaz gain, marketina, irudi-galeriak, webgunearen sorrera, ekitaldiaren zabalpena eta aplikazioaren kudeaketaz arduratzen gara.

Zenbat denbora behar duzu horrelako ekitaldi bat antolatzeko?
Azkar edo poliki egin daiteke. GKEek bidalitako formularioa itzultzen digutenetik, pare bat astetan ekitaldia guztiz antolatu izan dezakegu. Dena dela, proiektuaren garapenean gauzak baliozkotzea beharrezkoa izango denez, normalean, 3 aste edo hilabete bat behar izaten dugu.

Kirol ekitaldi birtualetan parte hartzea abantailaz beretik dago?
Gure zerbitzuak horrela funtzionatzen du: Erronka solidario bat antolatu eta zabalpena ematen diogu bi aste edo hilabeteetan zehar. Ekimenean parte hartzeko izena ematen dutenek erronka nahi duten unean egiteko aukera dute, bakarrik edo konpainian, bakoitzak nahi duen erara, baina, arauak errespetatuz.

2020. urtearen balorazio positiboa egin ostean, nola ikusten duzue 2021. urtea?
Ilusioz betetik eta gure zerbitzua hobetzeko asmoz hasi dugu urtea. Plataformaren bitartez eskainitako zerbitzuak hobetu nahi ditugu. Adibidez, kostuak murriztu eta GKEei zuzenean haien erronkak antolatzeko tresnak eskainiz, horrela, pertsona gehiagorengana iristeko aukera izango dugulakoan.

Aiako Harriak Parke Naturala: Altzibar, Oianleku, Zaria, Ozentzio, Altzibar

Gorka Martinez

unpaisenmimochila.blogspot.com

Ibilaldiaren iraupena: 6 ordu (geldialdiekin).

Gailurrak: Zaria (625m).

Zailtasun-maila: Erraza, desnibel metatu gutxi dago, baina, ibilbide luzea da.

Ibilaldia Oiartzungo Altzibar auzoan hasten da, pabilioi industrialen inguruan autoa aparkatu ostean. Errepidea atzean utzi eta ezkerreko bidea hartzen dugu grafitozko zaku handiekin topatu arte. Industrial ingurua zeharkatu, makina ehotzailearen aurretik igaro eta Karrika auzorako bide hartu behar da, auzoaren izena daraman zubia igaro ostean. Bide beretik jarraitu behar da PR-GI 1007 bidea lerro zuri-horiekin markatzen duen kartela topatu arte (30min). Aipatzekoa da bidea markatzen duten markak 50 metrora errepikatzen direla, beraz, bidea oso ondo markatuta dago. Bidetik jarraitu eta ezkerreko bidexka bat hartuz, Karrika ibaiarekiko bide paraleloa hartzea izango da hurrengo urratsa.

Bidean topatutako zubia zeharkatu ondoren, ordu bat eta 20 minutu ibili ostean Zorrola zubiaren inguruan Pilotasoroko norabidea erakutsiko duten bi kartelen artean PR-GI 1007 bidea markatzen duen bidea aukeratu beharko da. Ibaia eta lokatzezko bidea atzean utzi eta, inguruko bista ederrak eskaintzen dituen parkingeraino iritsiko gara zementuzko bidea jarraituz (1h 50min). Bide hori-zuria jarraituz bi ordu eta 45 minutuko ibilaldiaren ostean, bidez aldatu eta PR-GI 1006 bidea jarraitu beharko da Oianlekura iritsi arte. Bidea, iturri batean albotik igaro ostean, pinudi batean murgiltzen da, jarraian pagadi batera iristeko. Oianlekuraino jaitsiz gero (604m) Aiako Harriak parke naturaleko harrespil famatuenetako bat ikusi ahalko da, Oianlekuko babeslekutik hurbil. Basotik atera eta bidea jarraituz gero Kauso parkingera iritsiko gara (607m). Hurrengo helmuga Zaria mendia (664m) izango da (3h 50min). Parkingetik kilometro bat egin aurretik mendiko gailurrera iritsi eta bazkaltzeko etenaldia egiteko toki aproposa izango da.

Kable-sare elektrikoa jarraituz etxola bateraino jaitsi (4h 30min) eta PR-GI 1006 bide hartu beharko da orduan Sorondora bidean. Sorondon ibilbidea aldatu eta PR-GI bidea jarraitu beharko da Ozentziora bidera, marka zuri-berdeak dauzkan bidea jarraituz. Ozentzioko ermitara heldu ostean, zementuzko pista batek GI-3631 errepidera (4 km) iristeko aukera emango digu, nahiz eta aurretik Oiartzungo auzo ezberdinetara doan desbiderapena hartuz gero zuzenean hasierako puntura iristeko aukera dago, bide bazterretik ibiltzeko beharrik gabe.

SAN VICENTE DE PAUL IKASTETXEA

2	3	4	5	1	2	3	4	5	6	1	2	3	4
HH Infantil 2-3-4-5 urteko gelak D EREDUA				LH Primaria 1-2-3-4-5-6 D EREDUA						ESO 1-2-3 D EREDUA			DBH-ESO D EREDUA

AURREMATRIKULAZIO EPEA
Urtarrilaren 18tik 29ra
ATE IREKITAKO JARDUNALDIA
Urtarrilaren 20an, 17:00etan

San Vicente de Paul Ikastetxea Irun

El Pilar LH4

Denbora-pasak

7 hitz: Negua

N	P	B	O	K	O	S	U	M	P	I	T	B	J
E	L	U	R	R	A	V	H	D	E	V	N	K	H
S	E	P	P	P	Y	L	P	O	W	V	U	M	K
J	I	P	E	X	S	O	C	N	E	B	J	N	T
H	C	B	R	X	A	D	I	U	S	A	A	V	Z
F	V	X	H	I	Q	A	K	T	K	L	S	M	D
I	L	A	E	O	S	Y	P	A	U	W	U	F	Y
Q	E	B	T	S	T	C	T	P	L	W	T	X	O
Z	R	U	X	S	K	Z	Y	R	A	O	O	E	V
N	A	F	A	Q	F	P	A	Y	R	D	N	X	S
E	E	A	N	P	D	A	B	M	R	Z	D	K	X
Y	L	N	O	S	M	X	R	C	U	H	O	O	S
V	Z	D	A	M	G	I	X	E	A	K	A	O	T
B	Y	A	V	O	G	Q	A	I	K	G	L	Y	H

Elurra, eskularruak, hotza, lera, txanoa, bufanda, sutondoa

					5	4		
		8		4				
	4					6		9
		9	2	7		3		5
	8	3					2	7
2		7	3		4	8		6
	9				1			
			7	5	3			2
	7			8	9			

Aurrematrikula 2021/22

Tfnoa.: 943 667 004 e-maila: 012977aa@hezkuntza.net

Lekaenea HLHI

Irunen kulturaz beterik dator urteko lehen hiruhilekoa

2021. urtearen hasierarekin Irungo Udaleko Kultur arloak urteko lehen hiruhilekoan agenda kulturala osatuko duten ekitaldien berri eman du. Urtarrila, otsaila eta martxoa kulturaz beteko dituzten ekintzen artean, urtero antolatu ohi diren ekintzentzako tartea egongo da.

Juncal Eizaguirre Kultur ordezkariak azpimarratu bezala, unean uneko egoerak baldintzatuko du datozen hilabeteetan hiriko kultur ekitaldien garapena. Kultur ordezkariak ziurtatu duenez, orain arte egin den moduan, segurtasun neurri guztiak errespetatuko dira hirian antolatuko diren ekintzetan. Juncal Eizaguirrek adierazi duenez, "edonola ere, kulturak Irunen zutik jarraitzea nahi dugu". Kalitatezko programazioa eskaintzeko apustua berresteaz gainera, udaletik bertako artisten talentua laguntzen jarraitu nahi da.

Ildo horretatik, Juncal Eizaguirrek baieztatu duenez, inguruko artistek parte hartuko duten ekitaldi guztiek Kultura km0 etiketa eramango dute. "Orain arte, ohikoa zen hiriko profesionalekin lan egitea, baina ikusgaitasun handiagoa eman nahi diogu kolektiboari, eta marka hau sortu dugu, joan den urtearen bukaeran martxan jarri genuen programaren ildotik, une zail hauetan sektorea babesteko".Amaia Kultur Zentroa izango da programazioaren egoitza nagusietako bat. Segurtasun distantzia bermatze aldera, aretoko edukiera murriztuta egongo da. Urte hasieratik, Eguberrietako kanpainaren barruan garrantzi handia duten hitzorduak antolatu dira auditoriumean, hala nola, Luis Mariano Lirika Elkartearen Urteberri eguneko kontzertua eta Txabi Franquesa bakarrizketariaren emanaldia. Musika, antzerkia eta zinea izango dira datozen egunetako kultur agendaren ildo nagusiak.

Musika

Ricardo Requejo ganbera zikloko kontzertuak izango dira urteko lehen musika ekitaldi aipagarriak. Kamerata Oissok hasiera emango dio ganbera musika programaren laugarren edizioari, Mikel Zunzundegi txelo jotzaileak urtarrilaren 17an eskainiko duen kontzertuarekin. Ganbera zikloak zenbait hilabeteetako iraupena izango du, urtean zehar hirira maila goreneko musikarien agertoki bilakatzeko. emanaldien protagonistak musika hirian ikasten hasi ziren eta orain nazioarteko orkestretan lan egiten duten edo Irundik kanpoko ikastegietan irakasle diharduten irundar eta hondarribiarrak izango dira beti.

Horrela, orain arte baieztatutako hitzorduen artean, otsailaren 21ean, Iñaki Diéguez irundar akordeoilariak kontzertua eskainiko du eta martxoaren 14an Iker Martin eta Belén Sierraren eskutik saxo eta piano kontzertu bat izango da. Zikloaren sorreran bultzatzailea Irungo Udala izan zen, ekimena sustatu zuten hainbat artistekin batera, proiektuaren alma materra izan zen Ricardo Requejo irundar pianistaren omenez ganbera musika ziklo bat sortzeko. Ricardo Requjo musikariak Irungo Urrezko Domina jaso zuen eta 2018 bukaeran hil zen.

Aurreikusten diren gainontzeko emanaldien artean, EIA trío hirukoteak urtarrilaren 22an Oiasso Erromatar Museoan emango duen kontzertua aipatzeko da. Esther Sánchezek, Itziar Navarrok eta Isabel Martínek osatutako taldeak eskarmentu handi du, haien errepertorio gehiena cappella abesten dute eta. Iberiar penintsulako musika herrikoien inguruko landa lanetan oinarritzen dira eta, aldi berean, konposizioari eta beren moldaketentzako tartea uzten dute. Hurrengo egunean, hilak 23, Joseba Irazoki izango da Amaia Kultru Zentroko eszenatokian, "Joseba Irazoki eta lagunak + Pelo Momo" ikuskizunarekin, Bloody Mary dendaren 30. urteurrenaren esparruan. Otsailean, berriz, 18an, Ruper Ordorika kantautorea etorriko da Irunera, eta, 28an, Olatz Salvador donostiarra, bere taldearekin.

Antzerkia eta dantza

Antzerki denboraldia urtarrilaren 16an hasiko da, Intocables obrarekin, Ados Teatroaren eskutik, eta, urtarrilaren 30ean, Pirritx, Porrotx eta Marimotots izango dira Amaia KZko auditoriumean, euskaraz, Amaren intxaurrak ikuskizunarekin. Otsailean, berriz, Yllana konpainiak Maestrissimo obra aurkeztuko du, ganbera kontzertuaren eta komedia satirikoaren arteko erdibideko ikuskizun bat. Otsailaren 20an, Marie de Jong konpainiak Ikimilikiliklik euskarazko lana ekarriko du Amaiara eta, 25ean, Tanttaka Taldeak Utzi mezua seinalearen ondoren obra emango du. Bestalde, dantzaren alorrean, martxoaren 6an, Amaia Kultur Zentroan Dantzaz Konpainiak "BAT: tres piezas" lana eskainiko du. Martxoaren 27an, Adaxka Dantza Taldeak dantza emanaldia eskainiko du. Azkenik, martxoaren 13an, antzerkia izango da berriro: Oymyakon. Habitación 101 obra.

DokuIrun

Zinearen alorrean, DokuIrun izango da protagonista, Amaia Kultur Zentroan ematen den dokumental zikloa. Emanaldien aurretik, aukeratzen diren filmen protagonisten aurkezpenak izaten dira beti, eta, edizio honetarako, zeina bigarrena izango den, bi egun eta dokumental zehaztu dira: urtarrilaren 15erako, "2 urte, 4 hilabete eta egun bat", eta, urtarrilaren 29rako, El Drogas. Bestalde, "Zure abenturaren bila" zikloak, zeina hitzaldi aretoan egiten diren formatu txikiko saioek osatzen duten, 2021ean ere mundu osoko bidaia eta esperientzia bereziei buruzko emanaldiak ekarriko ditu, protagonistek aurkeztuta.

bideosare

-> Ikus-entzunezko proiektuak
-> Bideo grabaketa eta edizioa
-> Multimedia

Bideoak zure erara !

bideosare.com

irun
www.irun.org/igazte
gazte
informazioa

- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

Gazte BizHitza: ikasketa, lana edo etxebizitzarekin loturiko zalantzak

Webgune honetan informazio gaurkotu eta kalitatezkoa aurkitu ahalko duzu, zure zalantzak argitzeko arreta pertsonalizatuaz gainera. Bi aukera dituzu:

– Zuk zeuk arakatzea web honetako edukiak: ikasketak, lana eta etxebizitza.

– Arreta zuzena eta pertsonalizatua jaso nahi baduzu, hortxe gaituzu, entzuteko prest eta ahalik eta lasterren erantzuteko. Baita zuk behar duzun orientazio eta aholkularitza zerbitzua abian jartzeko ere, egoki deritzozun arte laguntza eskainiko dizuna.

Harremanetan jartzeko, ekin gustukoen edo egokien duzun bidetik.

GazteBizHitza Euskadiko gazteentzako orientazio eta aholkularitza doako on-line zerbitzua da.

WhatsApp zenbakia: 646 10 91 26. Zure mezua nahi duzunean bidali ahal duzu. Erantzuna ahalik eta lasterren jasoko duzu.

Gazte BizHitza

ikas bitartekaritza

ikaslan Gipuzkoa

Bidasoaldeko Ikaskuntzako Bitartekaritza Zerbitzua

Ikaskuntzako Bitartekaritza Eusko Jaurlaritzako zerbitzu publikoa eta doakoa da. Bere helburua 16 urte eta gehiagoko pertsonen artean prestakuntza sustatzea da, haien egoera soziolaborala edozein izanda ere.

Bitartekaritza zerbitzuan edozein ikaskuntzari buruz informatzen dugu:

– Gaurko eta geroko prestakuntza interesen azterketa, adierazpena eta zehaztapena.

– Bakoitzaren etengabeko prestakuntzaren Ibilbidearen plana egitea.

– Prestakuntza nahiei eta beharrei erantzuna emango dion informazioaren bilaketa.

Kontaktua: Virginia Garmendia Alonso, ikasbidasoaldea@ikaslangipuzkoa.eus helbide elektronikora idatziz edo 943 89 92 14 telefono zenbakira deituz, 98692 luzapenarekin. Zerbitzua Plaiaundi Institutuan kokatuta dago, Eraikin nagusiko 1. solairuan 103. zenbakian.

Ordutegia: Astelehenetan 11:00etatik 18:00etara eta asteartetik ostiralera 8:00etatik 15:00etara.

Informazio gehiago: Twitter-en @Ikasbidasoaldea kontuan edo Facebook-en Bitartekaritza Bidasoaldea orrialdean.

Bihotz-Biriken Suspertzea eta KDA/ DEA ekipoen erabilerako ikastaroa

Ikastaro teoriko-praktiko honekin bihotz-arnasketako geldialdia identifikatzen, oinarrizko bihotz-biriken suspertze (BBS) mugimenduak burutzen eta KDA (Kanpoko Desfibiladore Automatikoak) erabiltzen ikasten da.

Egunak: urtarrilaren 25etik 28ra.

Ordutegia: 19:00 - 21:00.

Tokia: DYA Boluntariotza eta Formakuntza Gunea (Baratzategi, 10 - Intxaurrondo - Donostia).

Prezioa: 90 €

Izena emateko edo informazio gehiago: 943 46 46 22 telefonora edo sartu www.DYAgipuzkoa.com

Ikasle kopurua mugatua da!

DYA GIPUZKOA

IGazteren Buletin Elektronikoa

Enplegu, ikastaro, mugikortasun, hezkuntza, aisialdi, boluntariotza eskaintzei buruzko informazioa jaso nahi duzu?

Izena eman IGazteren buletinera eta informazio guztia zure posta-elektronikoan jasoko duzu. Interesatzen zaizun guztia eskura izango duzu!

Bestetik, IGazteren buletinaren azken bertsioa webgunean aurkituko duzu beti.

Informazio gehiagorako: www.irun.org/igazte webgunea, igazte@irun.org helbide-elektronikoa, 943 505 444 telefono zenbakia edo WhatsApp bidez 607 771 173 zenbakian.

Ahaztu baino lehen, apuntatu zaitez!



Urtarrilak

15

DOKUIRUN 2021

Zer: "2 urte, 4 hilabete eta egun bat" dokumentalak derrigorrezko soldadutzaren alde borrokatu ziren 6 lagunen istorioa kontatzen du.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Sarrerak: Doako sarrera gonbidapenarekin, Turismo bulegoan eskuratu daitezkeenak.

17

Ganbera Zikloa Ricardo Requejo 2020

Zer: Kamerata Oiassok eta Mikel Zunzundegui biolontxelo jotzaileak sokak protagonista dituen kontzertua eskainiko dute.

Non: Amaia Kultur Zentroa.

Ordua: 19:00etan.

Prezioa: 4,50 euro.

Sarrerak: Interneten bidez, Irungo turismo bulegoan edo leihatilan ikuskizunaren egun berean.

22

Musika: Trío Graffiti

Zer: Esther Sánchez, Itziar Navarro eta Isabel Martín musikariek capella errepertorioa osatu dute penintsulako musika herrikoien landa-lanetan oinarrituta eta haiek egindako konponketei ateak irekiz.

Non: Oiasso Erromatar Museoan.

Ordua: 19:00etan.

Sarrerak: Gonbidapenarekin.

Telefonoa: 943 63 93 53.

23

Kontzertua

Zer: Joseba Irazoki eta lagunak eta Pelo Mono.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 18:00etan.

Prezioa: 7,50 euro.

Sarrerak: Interneten bidez, Irungo turismo bulegoan edo leihatilan ikuskizunaren egun berean.

29

DOKUIRUN 2021

Zer: Enrique Villarreal 'El drogas' abeslari ohi, baxu-jotzaile eta Barricada rock taldeko liderraren irudiaren dimentsio guztiak aztertzen dituen dokumental biografikoa.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Zuzendaria: Natxo Leuza.

Sarrerak: Doako sarrera gonbidapenarekin, Turismo bulegoan eskuratu daitezkeenak.

30

Pirritx, Porrotx eta Marimotos

Zer: "Amaren Intxaurrak" ikuskizuna eskainiko dute.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: Bi saio, 12:00etan eta 16:30etan.

Prezioa: 4,40 euro.

Sarrerak: Interneten bidez, Irungo turismo bulegoan edo leihatilan ikuskizunaren egun berean.

Denbora-pasen emaitzak

N	P	B	O	K	O	S	U	M	P	I	T	B	J
E	L	U	R	R	A	V	H	D	E	V	N	K	H
S	E	P	P	P	Y	L	P	O	W	V	U	M	K
J	I	P	E	X	S	O	C	N	E	B	J	N	T
H	C	B	R	X	A	D	I	U	S	A	A	V	Z
F	V	X	H	I	Q	A	K	T	K	L	S	M	D
I	L	A	E	O	S	Y	P	A	U	W	U	F	Y
Q	E	B	T	S	T	C	T	P	L	W	T	X	O
Z	R	U	X	S	K	Z	Y	R	A	O	O	E	V
N	A	F	A	Q	F	P	A	Y	R	D	N	X	S
E	E	A	N	P	D	A	B	M	R	Z	D	K	X
Y	L	N	O	S	M	X	R	C	U	H	O	O	S
V	Z	D	A	M	G	I	X	E	A	K	A	O	T
B	Y	A	V	O	G	Q	A	I	K	G	L	Y	H

9	2	1	8	6	5	4	7	3
6	3	8	9	4	7	2	5	1
7	4	5	1	3	2	6	8	9
1	6	9	2	7	8	3	4	5
4	8	3	5	9	6	1	2	7
2	5	7	3	1	4	8	9	6
5	9	6	4	2	1	7	3	8
8	1	4	7	5	3	9	6	2
3	7	2	6	8	9	5	1	4

Mariaren Lagundia · El Pilar
IRÚN

El Pilar Ikastetxea

Matrikula 2-3 urte

Hezkuntza pertsonalizatua

Urtarrilean zehar

Elkarrizketak eta bisita gidatuak

Zatoz eta ezagutu gaitzazu!

idazkaritza@mlagundiaelpilar.org
www.elpilarikastetxea.org @e

Eraiki dezagun.
Zentzuz.
Elkarrekin.